

FRUIZBARRI

Fruizko barriak
Euskara Zerbitzua
Fruizko Udala
2012ko garagarri
42.zk.

FRUIZBARRI

Sartuta gagoz udako sasoiari, eta hori, inon bada, gure Fruizen igartzen da: neska-mutilak udalekuean, pisinetarako joan-etorriak, alkarregaz egon eta behar egiteko ilusinoak eta gogoak, jaietarako azken unekoak lotzeko telefono deiak, prestaketak, antolaketak...

Eutsi deusagun geure-geurea dogun ilusino eta kemen horrerik!

Bizi-ingar horrexerik esker egin ahal izango deusiegu aurre krisiarene, murrizketen, prekarietatearen... laino baltzei!

Badakizue, zer dinoen esaera zaharrak: "*Ogi gogorrari hagin zorrotza*".

KIDAN MAGOA ETA TRIKI AFARIA

Garagarrilaren 14an (zapatua) hasi zan gure herria jaietarako berotzen, girotzen.

Egun horretan Fruizko Udalaren eta Jai Batzordearen eskutik magia, soinua, afari ederra, dantza eta kantua izan genduan, ez zan ezer falta izan, eta herritarrek maila ikaragarria emon eben ! Bai, horixe! Primerako giroa eta parte hartzea egon zan!


Afaltzeko 70 lagun inguru batu ziran

probalekuan, eta goizaldera arte ibili ziran dantzan eta kantuan!!

Afariaz eta afariko behar guztiez, beste urte batez, jai batzordea arduratu zan.

Igazko moduan, Marije eta Maribi laguntzaile ibili ziran.

ESKERRIK ASKO DANORI !!



DIRU-LAGUNTZA EUSKERA IKASTEN/HOBETZEN IBILI IZAN DIRANENTZAT

Fruizko Udalak 2011-2012 ikasturtean euskera ikasten /hobetzen ibili izan diran herritarrei diru-laguntza emongo deusie.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, orain arte bezala, **BALDINTZA HONEEK bete behar izango dira:**

-Fruizen erroldatuta egotea.

-Euskaltegi homologatu batean ikasten aritu izana.

-Euskaltegiaren agiria honakoak adierazotzen: ikasleak

egindako

maila, ordu kopurua eta ordaindutako dirua.

-Euskaltegiaren agiria honakoak adierazoten: ikaslearen asistentzia eta aprobezamenak.



Emongo dan diru-laguntzak muga bat, "tope" bat eukiko dau, Fruizko Udalak muga hori finkatzerako orduan, **eskari kopurua hartuko dau aurten kontutan.**

Barnetegietan egindako ikastaroen kasuan, orain arteko moduan, mantenu/pentsio gastuak ez dira diruz lagunduko.

RRETRATU ZAHARRAK 2013ko EGUTEGIRAKO

2010ean hasi zan Fruizko Udala (Arrieta eta Gamiz-Fikakoagaz batera) antxinako erretratuakaz egutegia kaleratzen. Erretratu horreek gure herriak, herritarrak, auzoak, ohiturak, jaiak lehen zelangoak ziran gogoratzen lagundu izan deuskue, eta sano ondo hartuak izan dira hasiera-hasieratik. Harrera on hori ikusita, **aurtengoan be egutegia aterako da**. Hori holan dala, lerro honeek emoten deuskuen aukerea aprobetxatu gura dogu:

-Lehenenengo eta behin, eskerrak emoteko orain arte argazkiakaz lagundu deuskuzuen Junkaleri, Marinari, Sebaseri, Jose Ramoneri, Rosa Mariri eta... gainerako guzti-guztiei.

-Eta jarraian, 2013ko egutegirako be, lehengo bizimodua, ohiturak, ogibideak... erakusten dabezan argazkiak udaletxera ekartzeko eskatzeko.

Badakizue, argazkiak udaletxean hartu, eskaneatu eta momentuan berean itzultzen deusaguz jabeari. Ez euki horren ardurarik, eta animatu zaitezie lehengo gure ohituren lekukotza jasotzen eta zabaltzen! **ERRETRATUAK**

**UDALETXERA EKARTZEKO EPEA ZABALIK
IRAILAREN 30a ARTE !**



FRUIZKO UDALAK BERE GIZARTE LANGILEA DAUKO

Lehen, gurean, Gizarte Zerbitzuetako gaiak Mungialde Gizarte Patzuergotik eroaten ziran.

Maiatzetik hasita, Fruizko Udalak berak daroa, udaletxetik bertatik, Gizarte Zerbitzuen arloa. Zerbitzu horrerri jagokozanetarako langile bat egoten da udaletxean (Eider), **EGUENETAN, 11:00etatik 13:00etara**, Telf: 94 615 32 10.

Edozein argibidetarako deitu eta informatu !!!



ORDAINKETAK BANKU-TXARTELAGAZ



Fruizko Udalak ordainketak banku-txartelen bidez egiteko modua jarri dau; aurrerantzean, bada, gura dabenek txartelagaz egin ahal izango dabez udalagaz zerikusia daukiezan ordainketa guztiak (ikastaroak, ugerlekuak, zergak...).

IRAKURGUNEA UGERLEKUETAN

Fruizko ugerlekuetan irakurgunea jarri da beste urte batez.

Adin tarte guztientzako liburuak eroan dira piszinetara, bertoko erabiltzaile guztiek gustukoren bat aurkitzeko modua euki daien.

Bainu ederra hartu ostean, eguzkia hartu bitartean... aprobe txatu eta lasai-lasai irakurri, liburuak gainbegiratu, seme-alabei irakurri, maileguan hartu...

